

Landa eremuak hiriaz duen ikuspena, Itun Soziala

(Vision of Cities from the rural world, the idea of a Social Agreement)

Berhocoirigoin, Mixel

Euskal Herriko Laborantza Ganbara. F – 64200 Ainhize Monjolose

Sortu berria den Euskal Herriko Laborantza Ganbararen helburua Iparraldean laborantza iraunkorra bultzatzea da, alegia, autonomia, ekonomoa, inguru giroa eta kontsumidorearen errespetatzaiela den laborantza. Hiriko jendeak eskatzen duen elikagaien kalitatea, paisaiaren edertasuna eta biodibertsitatearen aberastasuna, zer nolako laborantza ereduari lotuak dauden zeaztu behar da. Nekazaritza guztion gaia denez, hiritarrek eta baserritarrek, elkarrekiko izan behar dituzten betebeharrak eta eskubideak garapen iraunkorraren barnean finkatuak izan beharko dira. Gure ustez, gizarteko partaide ezberdinen arteko harremanak garapen iraunkorraren elementu garrantzitsua da.

Giltza-Hitzak: Iraunkorra. Autonomia. Laboraria. Gizartea. Eskubidea. Euskal Herria. Unibertuala.

El objetivo de la recién creada Cámara Agraria de Euskal Herria es la promoción de la agricultura sostenible, es decir, una agricultura autónoma, económica y respetuosa con el medio ambiente y con el consumidor. Se trata de determinar a qué modelo de agricultura se encuentran asociados la calidad de los alimentos, la belleza de los paisajes y la riqueza de la biodiversidad que la gente de la ciudad demanda. En nuestra opinión, las relaciones entre distintos participantes de la sociedad son un elemento importante del desarrollo sostenible.

Palabras Clave: Sostenible. Autonomía. Agricultor. Sociedad. Derecho. Euskal Herria. Universal.

L'objectif de la Cámara Agraria de Euskal Herria (Chambre Agraire d'Euskal Herria), récemment créée, est la promotion de l'agriculture durable, c'est-à-dire une agriculture autonome, économique et respectueuse de l'environnement et du consommateur. Il s'agit de déterminer à quel modèle d'agriculture sont associées la qualité des aliments, la beauté des paysages et la richesse de la biodiversité que demandent les gens des villes. L'agriculture étant quelque chose qui concerne tout le monde, il faudra établir, en termes de développement durable, les devoirs et les obligations que les habitants de la ville et les cultivateurs devront partager. A notre avis, les relations entre les différents participants de la société sont un élément important du développement durable.

Mots Clés: Durable. Autonomie. Agriculteur. Société. Droit. Euskal Herria. Universal.

SAR HITZA: Euskal Herriko Laborantza Ganbara, landa eta hiriaren arteko pakto sozialaren ideian.

Eusko ikaskuntzaren kongresuan garapen iraunkorra delarik lema, zer ekarpen egin dezake Euskal Herriko Laborantza Ganbarak «Landa eremuak hiria nola ikusten du» galderari erantzunez?

Eskatua zaidan galderari erantzuna emateko, uste dut beharrezkoa dela Iparraldeko landa eremua eta horko mugimendu edo aktualitate nagusia jorratzea, ez baitut uste absolutuan gai hori lantzen ahal dela. Ez dut pretentziorik Euskal Herri osoko landa eremua ezagutzeko; bizi dudan errealitatetik abiatuz, nire lantxoak debatarei aportazio bat egitea du helburu xumea.

Hiria eta baserriaren arteko harremanak ez dira argiak, ez baitira inoiz negoziatuak izan. Baserri munduan edo hirian, bakoitza bizi da bere hautuz, edo bortxaz... Bi mundu horiek jatorri bera dute eta elkarrengandik urrunduz doaz. Alta, hurbildu behar dute, gaurko arrangura, kezka eta galderei erantzun baikorra ekartzekotan... Landa eremuak hiria partaide bat bezala ikusi behar luke eta hiriak ere zentzu berean landa eremua. Baina bada asko eta asko egiteko horretara heldu nahi bada.

Euskal Herriko Laborantza Ganbarak bere osaketan eta helburuetan urrats batzuk egin ditu, bere ekarpena zentzu horretara eskaintzeko. Euskal Herriko Laborantza Ganbarak laborantza iraunkorra du helburu: horretan baizik ez baitaiteke hiria eta landaren arteko pakto soziala finka, laborariari legimititatea emanen dion pakto soziala.

1. ZERGATIK EUSKAL HERRIKO LABORANTZA GANBARA?

Euskal Herriko Laborantza Ganbara sortu badugu 2005eko urtarrilaren 15ean, ez da podere gosez; historia eta prozesu luze baten ondorioa edo etapa izan da. Hiru arrazoi nagusik egun handi horretara eraman gaituzte: Ipar Euskal Herriko laborantzaren berezitasuna eta proiektuak; berezitasun eta proiektu horien ukapena Pauen eta Parisen; Iparraldeko gizartearen sustenguzabala.

1.1. Ipar Euskal Herriko laborantzaren berezitasuna eta proiektuak

Iparraldeko eremuaren %80a laborantzak okupatzen du. 6.000 baserrietan 7.000 lan postu aurkitzen dira. Barnekaldeko herrietan, okupatuak %30 eta 40 artekoa laborantzako produkzioan aritzen da. Horietaz gain, 3000 pertsona okupatuak dira nekazaritzaren inguruko industria eta zerbitzuetan. Guztira beraz 10.000 lanpostu nekazaritzari lotuak dira, barnekaldeko okupatu guztien %50a! Ikusten dugu hor, nekazaritzari lotuak diren gaiek zein eragina duten Iparralde guztian...

“Pyrénées-Atlantiques” Departamenduko eremuari edo Frantziar estatuko eremuari konparatuz,

baserriak ttikiagoak dira (23 hektarea), baina erresistentzia gehiago bada: gazteak gehiago instalatzen dira (Departamenduko instalazioen %60a Euskal Herrian egiten da, Departamenduko baserrien %40a bakarrik delarik Euskal herrian) eta baserriak guttiago desagertzen dira: ikerketa ofizialen arabera 1988 eta 2000. urteen artean, Iparraldeak baserrien %16a galdu du, beste lurraldeetan, galtzea %27koa izan delarik. Lurra eta etxeari atxikimendu handia agertzen da. Baserria eta Etxea, ondare gisa hartuak dira eta helburua da horiei esker bizia egitea eta gero ondoko belaunaldiari (seme edo alabari) transmititzea.

Kalitatezko ekoizpenen inguruan, dinamika interesgarria badago: hiru sor-marka daude gaur: “Ossau-Irati” ardi gazta, Irulegiko arnoa, Ezpeletako Biperra; “Euskal txerria” ere prozesu horretan da eta laster sor-markaren identifikazioa lortu behar luke. Bestalde, Sagarnoa, gereziak, etxe ekoizpenak eta nekazaritza ekologikoaren inguruan iniziatibak garatzen ari dira, kalitatezko araudiak finkatuz, aterabide ekonomikoa eskaintzeko baserri ttikiari. Iparraldeko laborantza animatzen dutenen helburu nagusi bat da nekazaritzako praktikak koherentzian izan daitezen komunikazioan erabiltzen den kalitatearen irudiarekin. Beste helburua da ekoizteko sistema autonomo eta ekonomoak garatzea, ahal den neurrian sistema intentsibo eta produktibistak baztertuz. Hautu horiek izan dira, azken 25 urte hauetan, Iparraldeko laborantzaren aktibitatea eta aktualitatea markatu duten ezaugarri nagusiak, Departamenduko egiturek ukatu dutena, konfliktu asko sortaraziz.

1.2. Euskal Herriko laborantza Pauen eta Parisen ukatua

Horago aipaturiko hautu eta norabide horiek ez dira inoiz onargarri agertu “Pyrénées-Atlantiques” departamenduko kuadroan. Frantziar laborantzaren antolaketak leku garrantzitsua ematen dio Departamenduari. Europa, Estatua eta Departamendua hiru esparru nagusiak dira nekazal politiken erabakitzeke. Iparraldeak ezagutza ofizialik ez izanez, ez du departamenduko nekazal egituretan bere abots propioa; bestalde Iparraldeak departamenduaren %40a osatuz, gutxiengoan aurkitzen da ere zerbait erabakitzean... Eta horri gehitzen bazaio departamenduko agintariek beti laborantza industrializatu eta intentsibo baten hautua egiten dutela, ongi ulertzen da zergatik eta nola Euskal Herriak ez duen lekuri kuadro horretan. Hori guztia, helburutzat dugun laborantza iraunkorraren kaltetan da: laborantza iraunkorraren garatzea ez da bakarrik militantziaz edo borondatez egiten ahal, behar ditu bere alde joanen diren erabaki politikoak, diru laguntzak, ekoizteko eskubideak, behar du ere garapena eskuetan hartu duen egitura publiko bat: Laborantza Ganbara horretarako tresna egokia da legezko kompetentzia daukalako, diruaren aldetik ahalak daukalako, eta legimititatea daukalako bere ordezkariak laborari guztiek izendatzen baitituzte hauteskunde bidez...

Laborantza Ganbararen eskaera, bai eta laborantza iraunkorraren eskaera ukatuak dira berdin Pauen eta Parisen, nekazari munduko lobby handiek beren postura ezkorra inposatzen baitiete kargudun politikoeri eta administrazioari.

1.3. Iparraldeko gizartearen sostengu zabala

Laborantza iraunkorraren proiektua bultzatzeko eta Iparraldearen instituzionalizatzeko bidean lehen urrats bat egiteko, Laborantza Ganbara propio baten ideia hazi da urtez urte gizartearen sektore orotan. Haste hastetik, ELB sindikatua (Euskal Herriko Laborarien Batasuna) izan da eskaera horren akuilua. Laborantza munduan lan eginez, laborariek agertu dute argiki beren atxikimendua ELBren proiektuari eta Proiektu horrek baitezpadakoa duen tresnari. Euskal Herriko sindikatuak azken hauteskundeetan (2001ean) gehiengo lortzen zuen (%51.5a), duela hogeitau urte %29tan zelarrik...

Paraleloki lana egina izan da hautetsi eta sektore sozio ekonomiko gehienetan, azalduz nekazal gaiak ez zirela bakarrik nekazarien gaiak, guztien interesa zela gure lurraldean laborantzaren alde lan egitea, Iparraldearen egituratze edo ezagutuz lehen markoa Laborantza ganbara izan zitekeela... Erran dezakegu gaur egun, egiazko mugimendu sozial bat dagoela Euskal Herriko Laborantza Ganbara baten alde: auzapezen %70-ak izenpetu du eskaera hori; Euskal Herriko Garapen Kontseiluak, 2004ko ez-ohiko batzar nagusian bozkatu du %95eko gehiengoarekin egitura horren alde; Euskal Herriko Hautetsien Kontseiluak jada 2003an bere egin zuen galdera hori; langile sindikatu, ekonomia munduko eragile eta garapen sailan inplikaturiko beste aktore askok aldarrikapen hori beren gain hartzen zuen publikoki.

Euskal Herriko Laborantza Ganbara, batzuentzat da nekazarien errealitatea hurbiletik kontutan hartzea; beste batzuentzat da Herriaren eraikuntzan sartzen den urrats bat; beste batzuentzat oraino helburua den garapen iraunkorrari gorputza emateko parada, frogatuz produktibismoaz aparte beste bide bat posible dela, "beste mundu bat" posible dela hemen ere... Bakoitzak bere arrazoia badu eta arrazoi guztiak errespetagarriak dira; onartu behar da bakoitza bere bidetik etor dadin eskakizun edo proiektu baten sustengatzeko; askatasun horrek du indarra ematen: gure gizarte anitzak zerbait lortu nahi badu, ez du onartuko bakoitza bortxatua izan dadin arrazoi berentzat eskaera bat sustengatzea.

2. GARAPEN IRAUNKORRA LANDA EREMUAN, EUSKAL HERRIKO LABORANTZA GANBARAREN HELBURUA

Garapen iraunkorra, bere definizio unibertsalean, hiru zangoren gainean zutik egoten da; izan behar da sozial mailan zuzena, ekonomikoki bizipide sortzailea eta ingurumenaren errespetatzailea. Hiru zangoetarik bat falta baldin bada, garapena ez

da iraunkorra. Hori azpimarratu behar da egunero eta goraki, iraunkortasunaren lema saltsa guztietan errekuperatua baita, askotan ingurumenaren eremu bakarrera mugatuz: berdez margotu liberalismo bat garapen iraunkorra liteke! Nekazal munduan behintzat, gero eta agresiboagoa, liberalagoa eta produktibistagoa bultzatu nahi duten nekazaritza bati eko-baldintza batzuk ipiniz, nekazaritza iraunkorra deitzen dute ofizialki agro-industria eta politika mailako agintariek.

2.1. Nekazaritza iraunkorra

Nekazaritza iraunkorra eta herrikoa helburutzat duguna osoa da, bere elementu guztietan.

Izan behar da:

2.1.1. Sozial mailan zuzena

Konkretuki erran nahi du mundu osoko laborariek badutela eskubidea mundu osoko produkzioan parte hartzeko. Herrialde bakoitzeko laborarien premiazko eskubidea da beren Herrien elikaduraz hornitzea. Nekazaritzako ekoizpenak, erran nahi baita elikadura, beraz bizitzaren oinarria, ezin dela munduko merkatu librearen menpe utzi. OMC (MME Merkataritza Munduko Erakundea) egituraren logikaren aurka doan kontzeptua da. Ezin negoziatuzko printzipio bat da. Munduko herrialde bakoitzak izan behar du eskubidea bere nekazaritza, bere janariaren autonomia zaintzeko. Gero, herrialde bakoitzak behar ditu bere produkzioak laborarien artean banatu, lehentasuna emanez laborari tikieneri. Laborantzari ematen zaizkion diru laguntzak ere, gisa berean, banatu behar dira; gaurko errealitatea oso kontrarioa da: Europar laborantzako diru laguntzen %80a, haundienak diren nekazarien %20ei doakie!

2.1.2. Bizipide sortzailea

Gaur egun gero eta gehiago, laborantzako produkzioa antolatua da agro-industriaren intereserako. Laborantza laborarien bizipide sortzailea izan dadin, ekoizteko sistemen prozesuan jokatu behar da, nekazaritza autonomo eta ekonomoa bilatuz eta garatuz. Gaurko galdera ez da gehiago kantitateen mailan, bainan bai egiten diren kantitateek zenbat laborariri bizipide ekonomikoa permititzen duten jakitea...

2.1.3. Ingurumenaren errespetatzailea

Gai hori ere ekoizteko sistemetan sartzen da. Badira sistema kaltegarriak, edo errespetutsuak. Guztien ondareak diren ura, lurra, bio-aniztasuna, etab. laborarien lan tresnak dira; horrek ematen du laborariari ardura haundia bere lan moldeen asmatzeko. Gorago aipatu dudana «liberalismo berdearen» praktika da, ingurumenarako kaltegarriak diren modelo intentsiboak eta industrialak beti bultzatzea, eta gero, «a posteriori», kalteak estaltzeko,

diru publikoz finantzatzea ekintza batzuk... Ekoizpenen kalitatea ere sail honetan sartzen da: Ingurumenaren errespetatzaileak diren lan metodoak, kontsumitzaileen errespetatzaileak dira ere. Baina ekoizpenen kalitatea, irudi baten espresioan murriztua da askotan: irudi ona duen produktua, produktu ona liteke! Nekazaritza iraunkorrak praktika irudiarren araberakoa izan dadin eskatzen duela, ebidentzia bat da...ez dena debalde oroitaraztea!

Orain, aipatuak izan diren hiru elementuak: soziala, ekonomia eta ingurumena elkar lotuak dira ere: ezin da izan ekonomikoki efikaza baina sozialki baztertua den sistema.

2.1.4. Hitz nagusia: autonomia

Laborantza iraunkorrak autonomia balorizatu nahi du oroz gaineratik:

- Autonomia erabakitzailea: laborariak menperatu behar ditu bere baserriko hautu estrategikoak; aldiz gaurko sistemak laboraria morroi bilakatzen du... Autonomi erabakitzailea izatea da erabakitze gaitasuna izatea, eta gaitasun horren praktikan ezartzeko ahala izatea.
- Autonomia teknikoak: Ekoizteko teknikak, laborariak hautatu behar ditu, esperientziak baliatuz, bere baserriko errealtateari egokiatuz. Baserri baten ekoizpena, hiru faktoreen emaitza da: lana, kapitala eta «kontsumo intermediarioak» deitzen ditugunak (ongailuak, energia, abereen elikadura, haziak, eta abar.). Autonomia teknikoak ahal bezainbat mugatu behar du kapitala eta bertzeko kontsumo horien zatia, eta batez ere kezka sortzen duten elementuak: ura, energia, bio-aniztasuna...
- Autonomia ekonomikoa: Laborariak bere hautuak egiteko behar ditu ere ekonomikoki ahalak izan. Adibidez, ekoizten duen 100, horretatik 90 agro-industria eta bankoari doakie, hauek inposatuak diote gauza asko...

Autonomia herrialde batentzat ere berdina beharrezkoa da. Herrialde edo pertsona bakoitzaren autonomiak dio bakoitzari ematen bestekin harreman orekatuak izateko ahala: autonomia ez baita autarkia...

2.2. Nekazaritza iraunkorra, Euskal Herriko Laborantza Ganbararen lan sailetan

Nekazaritza iraunkorra gauzatu dadin, quadro politikoen mailan, baserriaren mailan eta lurraldeko beste eragileekin lan egin behar da. Hori kontutan hartuz, Euskal Herriko Laborantza Ganbara sortu zelarik 2005eko urtarrilaren 15ean, laborantza iraunkor eta herritar baten norabidea finkatu izan zen, sei lema nagusiren inguruan: Autonomia, Baserrien transmititzeko ahalak, Produzioak eta diru laguntzen zuzenki banatzea, Naturaren errespetua, Ekoizpenen kalitatea, Tokiko garapena. Fin-

katua izan zen ere Laborantza Ganbaran gizarteko beste sektoreek ere lekua izanen zutela: kontsumitzaileak, igurumenaz arduratzen direnak, garapenaren inplikatuak direnak... Laborariak dira oinarria, baina besteekin dialogoan. 2005eko otsailaren 26ko lehen Biltzar Orokorrean sei lema horien gauzatzeko, lau lan sail finkatuak izan ziren:

2.2.1. Lehen lan saila: Laborantza politiken hurbiletik segitzea

Politika mailan hartzen diren erabakiek garrantzi handia dute moldatzen den laborantzarik buruz. Izan dadin internazional mailan, Europan, Estatuan edo Departamenduan, maila guztiek beren erabakiak hartzen dituzte laborarien onerako edo kalterako, laborantza iraunkorraren onerako edo kalterako. Euskal Herriko Laborantza Ganbarak hurbiletik segitu behar ditu erabaki horiek laborantza iraunkor bat defenditzeko.

Sail honetan, PAC berriaren informazioa Iparralde guztian egin ondoren, nahi zuten laborari guzietan, Laborantza Ganbarak proposatzen du PAC horren aplikazioan nekazariari laguntza ekartzea informazioa izan dezan baina ere erabakien hartzekeko elementu batzuk.

Bestalde, sail horri lotua den lan bat abiatu da laster “ura eta nekazaritza” problematika aztertzeke. Urik gabe ez dela nekazaritza gauza jakina da, baina, ura mugatua den elementua da eta nekazaritza intentsiboak nasaiki eskatzen duena. Jakinez ere azken hiru urte hauetan, idortea ezagutu dugula eta biharko perspektibak maila horretan ez direla baikoak, debate nagusi bat pil-pilean dago, eta gizarte osoa hunkitzen du. Sektoreko lobby-ak nahi luke ur erresebak bultzatu, diru publiko asko eskatuz, nekazaritza intentsibo urtatua garatzeko. Hori da, bultzatu nahi den nekazaritza, klima artifizialki egokiatzea. Laborantza Ganbarak erabaki du koherenteagoa dela ekoizteko metodo eta praktikak egokiatzea dugun klimari. Orain abiatu den lan horren helburua izanen da hautu politikoen egiteko mementoan, batez ere presuposizioak finkatzean, argumenduak izatea laborantzako dirua, iraunkortasunaren alde joan dadin. Lan horren helburua da ere laboraria bere baserrian laguntzea hautu eta praktika hoberekin izan ditzan ondoko urteetan izan litekeen klimaren aitzinean.

2.2.2. Bigarren lan saila: Etxaldearen transmisioa

«Behin saldu, betikotz galdu» dio kantua... Laborantza munduak lurra galtzen ari du, etxaldeak desagertzen ari dira, eta luraren prezioa igoten ari da, ezin onartuzko hein batetaraino. Instalatzeko nahikaria gogorra da Euskal Herrian, beste toki batzuei konparatuz. “Laborantza salbatu behar da, gazteak instalatu behar dira” dena ele eder ezker eta eskuin...Baina konkretuki zer egiten da? Gai zabal horri buruz, Laborantza Ganbarak ez ditu erantzun guztiak ekarriko, baina lan sail batzuk hartzen ahalko ditu bere gain beste partaideekin harremanetan sartuz...

Sail horretan Laborantza Ganbarak abiatu-
rikolana:

Lurrari buruzko gaietan berezitua den ikasle batekin, lan juridiko bat egin da ikusteko zer formula juridiko berri asmatzen ahal den, lurra laborarien lan tresna geldi dadin, gaur egun Euskal Herriak ezagutzen duen ingurune espekulatibo honetan. Horretarako, konbenio berezi bat finkatua dugu Poitiers-eko “Droit rural” saileko Unibersitatearekin.

Bestalde laborari gazteen instalazio prozesuan, lan bat egin izanen da gaztea gogoetarako laborantza autonomoari buruz, eta bere baserrian hautu onenetan laguntzeko. Formakuntza sail inportanteak izanen dira maila horretan.

2.2.3. Hirugarren lan saila: Laborarien bizipidea

Laborantza Ganbararen lehentasunetik bat da frogatzea Euskal Herriko laborantzaren geroa ez dela beti eta gehiago kantitate egitean, baina bai hobeki egitean, gastuak txipituz. Ardi sailean egin estudioek frogatzen dute 76.000L egiten duten etxaldee, 20.000L egiten dutenei baino diru gutiagor galditzen zaiela bizitzeko. 1990-etik hona kontsumatzaileek onartu dute ardi gasna %26az gehiago pagatzea, denbora berean artzainei esnea %1,15az gehiago baizik ez zaielarik ordaindua. Esneak permititu duen aberastasunetik artzainak baztertuak izan dira. Gauza bera da produkzio guztietan...

Sail horretan Laborantza Ganbarak abiatu-
rikolana:

Animatzaile batek, laborari lan talde batekin, lan bat abiatzen du kriterio tekniko ekonomikoen ikertzeko Euskal Herriko laborantzarako garrantzitsuak diren produkzioetan. Horrekin batera formakuntza eta informazio bilkurak programatuak dira, betiko “autonomia eta ekonomia” hori zer den konkretuki esplikatzeko eta eztabaidatzeko. Helburua da ikustea zein den sistemarik onena laborarien bizipidearendako. Beste lan bat ere abiatzen da kalitateko etxe ekoizpenen salmenta antolatzeko Euskal Herrian eta Euskal Herritik kanpo.

2.2.4. Laugarren lan saila: Lurralde antolaketa

Laboraria ez da bere baserrian edo laborantzan mugatzen; laborantzaren geroa, beste aktoreekin batera finkatzen da. Guztiena den espazioan, nola elkarrekin erabaki laborantzaren eta beste aktibitateen lekua? Guztienak diren ura edo bio-aniztasuna nola zaindu jakinez momentu berean laborarien bizipide tresnak direla? Horra beraz elkarrekin bilatu behar ditugun erantzunak.

Sail horretan Laborantza Ganbarak abiatu-
rikolana:

Sail honetan, “bi bider bi” bide proiektuari buruzko lan bat egin da finkatzeko zein den garapen onena Baxe Nafarroa eta, oro har, Iparraldeko

barnekalde guztiarentzat, eta proposizio alternati-
boak egiteko azpiegituren mailan.

Bestalde, lan bat egin da ere “Natura 2000”-ri buruz ikertzeko zer baldintzetan akomeazten ahal den Euskal Herriko mendietan segitu nahi dugun artzaingoa, eta Natura 2000-ak lituzkeen araudiak bio-aniztasuna zaintzeko. Horretarako Bordaleko Geografia Unibersitatearekin konbenio bat finkatua da.

Hartza Pirineoetan berriz sartzearen erabakiak lan talde bat sortu du Laborantza Ganbaran, ikusteko posible den lehentasuna ematea menditik bizi den artzainari, leku bat utziz askok galdegiten duten hartzarentzat.

Euskal Herri osoko mendiari buruzko “fotografia” bat ari da egiten, horren ondotik lan bat finkatzeko amankomunean, Hego eta Iparraldea elkarrekin.

3. LANDA EREMUA ETA HIRIAREN ARTEKO PAKTU SOZIALAREN ALDE

Gure ustez landa eremua eta hiriaren arteko pakto soziala ez da komunikazio hutsean osatzen ahal, ezta ere batek besteari inposatutako papel edo postura batean. Diodalarik ez dela gisa horretara osatzen ahal, gaizki diot: harreman mota hori posible da eta askotan hola gertatzen da; hobeki errateko, laborantzari buruz dugun ikuspegiak, garatu nahi dugun iraunkortasunak, hiriarekilako harreman orekatu eta konfiantzazko bat eskatzen du.

3.1. Elkar ezagutu eta elkar ulertu

Hiria eta landa, jatorri berekoak diren bi gizarteek ez dute elkar ezagutzen. Besteak duen itxuraz, edo besteak erakusten duen itxuraz, bakoitzak definitzen du bestea nor den, eta beraz, bestearekin izan behar duen harremana. Landa eremuarentzat, hiria da kontsumitzaileak kokatzen diren gunea; janari ona, sana, segurua eta merkea eskatzen dutenak; 35 orduak, asteburuak eta oporrak dituztenak; landa eremuetara etortzen direnak, errespetu gutxirekin, “beren etxan” balira bezala (udazken honetako onddo sasoiaren konfliktu asko gertatu dira). Hala ere baserriko mundua kontzientea da hirian gauza guztiak ez direla “arrosak”, eta ez lezake landa eremuan daukan espazioa eta hein bateko autonomia abandonatu, hiriko kontzentrazio-
ra joateko. Aldiz, baserriko gazteek ere eskatzen duten kontsumo modeloa (ez baitezpada janariari dagokionez, baina maila guztietan), kultura edo animazio eskaintza, hirian aurkitzen ahal dituzte errazago eta beraz, beraientzat, hiriko eremua landa eremua baino erakargarriagoa da...

Bestaldetik, nahiz eta horretarako kalifikatua ez izan, uste dut hiritarrak landa eremuaz duen ikuspegi sinboloz osatua dela, berak daukan edo imajinazioan sartu dizkioten irudi mitiko batzuen inguruan... Baina ere, berarentzat, laboraria da bere aberastasun materialaz harro dagoena, diru lagun-

tza asko lortzen dituen, gauza batzuk gordetzen dituen (bere laneko metodoetan adibidez...), kutsadura askoren errua daukana... Hala ere, hiritarrak zenbait sinpatiarekin ikusten du laboraria naturaren elementu bat bezala, eta bere bizitza zati batean baldintzatzen duen bat bezala. Hiriko jendeak, lan denbora ttikitu delakoan, posibilitatea dauka hirian bizitzeko, hiriak eskaintzen dituen abantailekin, eta hiriaren alde txarretik ihes egiteko landa eremura joanez aste buruetan, oxigeno, espazio eta askatasun bila... Diot ere, landa eremua reinserzio leku egokia izan daitekeela hirietan difikultatean diren pertsonentzat... Baina hori da baserriar baten ustez, hiriak lukeen ikuspegia landa eremuaz!

Uste dugunaz mintzatzeko ordez, mintza gaitzen nahi dugunaz. Sinesten dugu laborantzako gai nagusiak gizarte guztiko gaiak direla: janaria, ingurumena, nekazal politikak, eta abar.

Laborantza ez da sektore ekonomiko arrunta; ez da bakarrik janari kantitate hornitzailea; laborantza da multidiziplinaritatea daukan aktibitatea. Orain arte horrela izan da; gaur ere horrela da bere gehiengoan, baina bihar ez ditake baitezpada horrela izan: osoki industrializatua den nekazaritza baldin bada bihar, nekazaririk gabeko nekazaritza bat izanen dugu; hori posible da teknikoki, janari kantitatearen hornitzea baizik ez bada helburutzat hartzen. Zer izanen da orduan elikaduraren balioa, kalitatea, helburua? Zer izanen dira lurra, ura, paisaiaren egoera eta hauekilako harremanak? Zenbat kostako da eta nori laborantza industrial horrek ekarriko ez dituen zerbitzuen ekartzea (bazterrak zaintzea...), edo laborantza horrek ekarriko dituen kalteen ordaintzea (kutsadura...)?

Berrito azpimarratu nahi dut: gai horiek ez dira bakarrik laborarien gaiak; hiriak behar du bere hitza eman, bere gaiak baitira ere. Ez gara korporatismo hutsean eta sektoreko lobby-en inposaketan gauzak finkatu nahi dituzten horietarik! Landa eremua eta hiriak, elkar ezagutzera eramanez gaituen dialogo eta pedagogia landu behar dugu elkarrekin, guztiontzat hobea eta onargarriagoa izanen den nekazaritza baten baldintzak bultzatuz. Gizarteko beste sektoreekin aztertu, eta adostu nahi genituzkeen puntuak, ondoko hauek dira.

3.2. Zein elikadura?

Ongi pentsatzen bada, elikadura da kontsumitzaileak ondo ezagutzen ez duen gauza bat bere barnean amatea, kontzienteki ala ez, pentsatuz "jaten dudana (bilakatzen) naiz". Horrek ematen dio dependentzia eta askotan beldurra. Elikadura, "kalitatea" hitzari lotua da, errealitatean ez bada ere, komunikazioan beti! Kontsumitzaileak aurkitzen ahal ditu 180000 produktu ezberdinak: egunero produktu berri bat probatzeko, pertsona bakoitzak sei bizitza izan behar lituzke! Eta, erran gabe doa produktu bakoitza kalitatearen irudiarekin presentatzen dela kontsumitzailearen aurrean; ez da aldi bat ere ikusten "eros nazazue, kalitate txarrekoa naiz" moduko publizitaterik.

Agro-industriak definituriko kalitatearen menpe gara laborari eta kontsumitzaile gehienak. "kalitatea" deitzen da, produktu bati ematen zaion kolorea, gustua, komunikazioa, irudia... Kalitatearen irudiak egiten du kalitatea! Larriagoa dena da nekazaritza intentsibotik ateratako ekoizpenak saltzen direla natura sanoaren irudiarekin; adibidez, behi esnearen produkzioa industrializatzen ari da gero eta gehiago: behiak beti barnean eta zerealez aberastua den pentsu konpleto nahikoa aurrean; belarra jateko egina den abere hori, txerria edo oiloa bezala bazkatua da! Aldiz, bere esnetik egin gazta edo yogurta salduko du enpresak, behiak larre berdeetan belarra janez irudiarekin; gauza bera gertatzen da elikadura sail guztietan: nekazaritza industrialak, bere produktuen saltzeko, baliatzen du berak desagertarazten duen nekazaritzaren irudia! Fenomeno horren aurrean berdin engainatuak gara hirietako edo baserriko jendea... Horregatik adostu behar gara definizio eta praktika batzuen inguruan: kalitatea da lehen lehenik gustua eta sanotasuna. Elikadura industrialak ez du bata ez bestea segurtatzen: gustua txarra dauka eta sanidadea, higiena mailan kokatzen da, kontutan hartu gabe antibiotika edo produktu kimiko ondarkinak edo trangenikoren problematika. Laborantza iraunkorraren kontzeptuan, gustua eta sanotasuna ekoizteko sistemei lotuak dira, ekoizteko prozesuei. Prozesu horiek araudietan finkatuak izan behar dute, eta aplikatuak argitasun zabalean. Kontsumitzaileen beldur batzuei erantzuteko, "trazabilitatea" asmatua izan da: bakoitzak badu aukera jakiteko jaten duena nondik heldu den... Hori ez da aski; gehitu behar zaio "transparentzia", jakiteko nola egina den! Elikadura gaietan hiriko jendeak behar du izan aukera ikusteko nola ekoizten diren proposatuak zaizkion gauzak; konfiantza, prezio horretan da finkatuko. Gure helburua izan behar da komunikazioa eta irudiaren maila berean ezartzea gure praktika: goranahiko helburua da. Horren truke kontsumitzaileak onartu behar du janariak kostu bat daukala; bere erosketa hautuetan nekazaritza mota bat edo beste bat bultzatzen ahal duela; bere janari gastuen %20a dela nekazariari abian...; janaria dela pertsonaren lehendabiziko beharra, eta ez duela zentzurik gizarte aurreratuaren seinalea izan dadin beti eta guttiago gastatzea janariarentzat.

Hiria eta landa eremuaren arteko pakto soziala baldintzatzen duen lema nagusia da beraz elikadura: bakoitzaren eskubide eta eginbideak finkatu behar dira. Etxe ekoizpenaren inguruan, badira esperientziak; ongi definitutako sor marka edo label batzuen inguruan ere, eko-nekazaritza ahantzi gabe. Zentzu horretara joateko, Euskal Herriko Laborantza Ganbarak, bere egituran, kontsumitzaileen ordezkariari lekua eman dio, eta, ekoizteko sistemak, elkarrekin hautatu nahi ditugunak, gure sail nagusia da.

3.3. "Gure bazterrak, norenak eta norentzako?"

Euskal Herri osoa hartuz, espazioaren %80a, biztanleen %3ren esku dago (okupatuaren %3a laboraria baita). Datu horiek berek agertzen digute

espazioa dela, elikaduraren ondoan, hiria eta landaren arteko pakto sozialaren beste elementu nagusia. Espazioa diodalarik, ingurumena diot, paisaia, naturaren gozamina. Natura, guztien ondarea da eta nekazariaren lan tresna. Ez da ofizio askotan ikusten berezitasun hori: baten lan tresna, guztien ondarea! Konfliktu asko sortzeko parada ematen du, baina ere, gauza hori ongi kudeatzen bada, gizarte kohesioa egiteko parada. Espazioari loturiko elementu guztiek zer ikusirik dute nekazaritza ereduarekin. Ikerketa eta txosten ofizial guztiek frogatzen dute intentsifikazioa ingurumenaren kaltetan egiten dela: ureko nitrogenoak edo produktu kimikoak ekoizpen modelotik etortzen dira. Nekazaritza, bizitza da: lurra, bio-aniztasuna, landarea, aberea, etab. Katearen zati guztiak bizitza dira, eta prozesu guztiaren helburua bizitza da, kontsumitzailea denaz geroz helburu.

Horago jorratutako gaiari lotuz, ingurumena errespetatzen duten sistemek kontsumitzailea errespetatzen dute ere.

Paisaia aipatuz, erran nezake denok paisaia kontsumitzaile garela, eta hori ere, kalitatezkoa izan dadin nahi dugula. Paisaia, bi elementu egiten dute: bata da geografia eta horri buruz ez daiteke gauza haundirik egin. Bestea da nekazaritza; nekazariak paisaia ekoizleak dira ere. Frantsesez, nekazaria deitzen da “paysan”, “paysan”, “pays” eta “paysage” hitzek iturri bera dute. Nola ekoizten da paisaia? Ardiak edo behiak beti barruan bazkatuak direlarik, edo kanpoan larreetan direlarik, ez da paisaia bera; monokultura praktikatzen bada, edo kultura anitzak, ez da paisaia bera; mendi lekuak garbituak baldin badira edo sasituak, ez da paisaia bera; oihanek estaltzen badute libratzen diren eremu guztiak, edo nekazaritza dibersifikatu bat egiten bada, ez da paisaia bera... Hemen ere ikusten da nekazaritza ezin dela mugatu kantitateak ekoizteko industria batean...

Naturaz baliatzeko ahalmena beste gauza garrantzitsu bat da. Hiriko jendeak hiritik atera behar du batzuetan, beharrezkoa zaio. Asmo hori betetzeko, baserri mundura edo mendira doa. Eskubide osoa daukala, ez dugu duda izpirik. Eginbideak daukala ere, ez dugu dudatzen; horrek erran nahi du laborariaren bizipidea den natura horretan, kasu egin behar duela mendian diren abereei, landetako ekoizpenei, hor aurkitzen dituen pertsoneri... Laborariak ere, “bere espazioan” onartu behar du hiriko jendea,

gogoan izanez paseatzen dabilen pertsona hori dela ere bere ekoizpenak erosten duen kontsumitzailea... Zoritxarrez, laborantza munduan, aktore batzuegandik, korporatismo demagogiko bat garatua da, “kanpotik” heldu direnei buruz, eta konfliktuak agertzen dira adibidez mendi bide proiektu batzuei buruz...

Elikadurarentzat bezala, gai honetan ere, hiria eta landa eremuaren arteko eskubide eta eginbideak, bakoitzarentzat finkatu beharra dago. Hori ere Laborantza Ganbararen asmotan da, eta horretarako ditugu partaide ingurumenaren zaintzaileak.

3.4. Zer nekazal politika?

Azken puntu bat aipatu nahi nuke bakarrik: hau da nekazal politikari buruz izan dezakegun konbergentzia. Nekazaritzan diru publiko asko sartzen da. Diru publikoa, pertsona guztien zergen dirua da eta gehienbat gaizki banatua da: nekazaritza haundi eta industrializatuaren alde. Nekazaritza, elikaduraz, ingurumenaz edo paisaiar arduratzen diren hiritarrek lagundu behar gaituzte, elkarrekin ikus dezakegun moduan, nekazal politika zuzenago eta kalitatiboago bat eskatzen...

Laborariak eta baserri mundua kontzientekak dira gizartearen zati ttiki bat direla eta politikoei beti ardura gehiago izan behar dutela hiriko jendearentzat, han baitira hauteskundeak irabazten edo galtzen. Kontutan hartuak ez izateko arriskuan direla sentitzen dute. Sentimentu horrek frustazio eta “autodefentsa” moduko erreakzioak sor ditzake: arrazoi bat gehiago hiriko jendea inplika dadin, berak nahi duen baserri munduaren alde lan egiten dutenen ahotsa entzuna izan dadin politikoengandik.

AZKEN HITZA

Landa eremuak eta hiriak destino bera daukate. Elkarri lotuak dira onerako edo txarrerako. Harreman orekatuak, eskubide eta eginbideetan finkatzen dira. Horretarako dialogoa eta honek ekartzen duen elkar ezagutza da bidea. Hori posible izan dadin, behar dira asmatu guneak elkar topatzeko... Mundu bakoitzeko ordezkarien lana izan behar du, baina ere gizarte osoari aukera eman behar zaio. Badira jada zentzu horretara doazen inizatibak... Askoz gehiago egin behar dugu.